


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/03/20-2018/04/03-2018/04/17)</b>  Hurrengo saioa: 2018/05/15	Herri Batzarreko akta	Batzarreko aktaren gainbegira eman ondoren, herritarren ekarpenen atala osatu dugu (inbertsioetarako proposamenak).	
	Wifi jartzeko diru-laguntza	Wifi4EU Europatik datorren diru-laguntza da eta eraikuntza publiko, liburutegi, plaza eta abarretan wifia dohain jartzeko aukera eskaintzen du. 15.000€-ko bonoak ematen dituzte eta urte t' erdi dago diru-laguntza kudeatzeko. Maiatzaren 15ean egin behar da eskaera (diru-laguntzak eskaeren ordenaren arabera ematen dituzte).	Maiatzaren 15ean eskaera luzatu
	Formazio saioak	Su eskolakoekin jarri gara harremanetan, formazioz beraiek arduratzen direlako. Oinarrizko moduluaren aurrekontua aztertu dugu eta 4 ordukoa 104,04€ kostatzen denez, hitzaldiren bat eskatzea adosten da. Lehen Sorospen ikastaroa egiteko bi aukera jorratu ditugu: Gurutze Gorria eta EHUko Erizaintza.	Hitzaldi eta ikastaroen aurrekontuak eskatu
	<b>GipuzkoaLab</b> diru-laguntza	Itsasoren etorkizunari buruzko plan estrategikoa garatzean datza. Herritarrekin, gazte zein helduekin dinamizazio eta hausnarketa lana egin nahi da, urte t'erdian burutu beharrekoa eta 2030era arteko ikuspuntuarekin, kanpoko aholkularitza bitarteko. Proiektua garatzen hasi gara: aurrekariak eta laburpena, motibazioa, metodologia, helburuak, planifikazioa,...	Atal bakoitza gure herriko beharretara doitzen joan.
	<b>Kbulegoatik</b> ekarritako informazioa	- Kultur jarduerak garatzeko diru-laguntza eskaerak argitaratu dira GAOn. Aurkezteko epea martxoaren 14ean ireki zen eta apirilaren 10ean bukatu. TOKIKO, OREKA, SUSPERKA, OLATUAK, MUNDUA izeneko programak daude eta hauek aztertzen hasteko, informazioa Drive-n partekatuko dugu.	Programa bakoitza aztertu eta hoberen egokitzen zaigunari heldu.
	Jakinarazpenak	- Gizarte Laguntzaileak Itsason izango duen egun eta ordutegiaren inguruko jakinarazpena bideratu da. - Apirilaren 14ko auzolanaren jakinarazpena bideratu da. - Euskararen ezagutza areagotzeko ikastaroak antolatu nahi ditu Udalak. Hau dela eta, herritarren interesen berri jakiteko jakinarazpena banatuko da maiatzaren 2an.	- Dauden eskaerei erantzun egokia eskaintzeko proposamenak egin.
	BBB formazio saioa	Bihotz-Biriketako Bizkortzea eta Kanpo Desfibriladorearen erabilerari buruzkoa formazioa egiteko datak proposatu dira.	Datak finkoak direnean, herrian informazioa zabaldu



	Euskaraldia	<b>11 egun euskaraz, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra</b> bitartean egingo den egitasmoa da eta hizkuntza ohiturak eta ohiko harremanak euskaraz sendotzea da helburua. <a href="https://euskaraldia.eus">https://euskaraldia.eus</a> webgunean dagoen informazioa aztertzen hasi gara	Gaia jorratzen jarraitu
--	-------------	--	-------------------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/03/27-2018/04/10)</b>  Hurrengo saioa: 2018/04/24	Auzolana	Apirilaren 14ko auzolana eta ondorengo afariari buruzko zehaztasunak aipatu dira eta komunikazio batzordean jakinarazpena garatuko da.	
	<b>GipuzkoaLab</b> diru-laguntza	Proiektuaren nondik norakoak zehaztu ditugu eta, ebaluazio irizpideen balorazioa zertan oinarritzen den ere aztertu dugu, erakargarritasuna bermatze aldera.	Apirilaren 12an aurkeztu
	<b>TOKIKO</b> diru-laguntzak	- <b>Kbulegoa</b> tik ekarritako informazioa aztertu ondoren, TOKIKOren hautua egin da eta ondarearen inguruko proiektua (erretaularen difusiorako, batik bat) garatzen aritu gara (justifikazioa, helburuak, aurrekontua,...)	Atal bakoitza gure herriko beharretara doitzen joan eta apirilaren 10ean aurkeztu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/ 04/18)</b>  Hurrengo saioa: 2018/05/02	Alegiko parkea	Aste honetan bukatuko dira Alegiko parkearen obrak: jolas parkeko zoruan material desberdinak botako dira gunearen arabera, komunean eta dutxan elektrizistak instalazioa prest utziko du (argia pizteko detektagailua jarriko da), iturginak ere konexioak eginak ditu dagoeneko eta frontoiko argiarentzat txanpon makina jarriko da komunaren ondoko paretan sartuta. Hormigoizko eserlekuaren gainean egurrezko ohola jarriko da. Eliza atarira sartzeko gunean oinezkoentzat hormigoizko pasabidea egingo da eta harrizko eserlekuan ere egurrezko ohola jarriko da.	
	Zaborrak	Sasietatik bidalitako datuen azterketa egin dugu eta zaborren kudeaketari buruzko gogoeta egiten aritu gara. Jasotzen ari garen emaitzak hobetze aldera, herritarrekin bilerak egitea proposatzen da (errefuxaren kontainera itxi, organikoarentzat eta pixoihalentzat konpostagailuak jarri, edukiontzi marroia bai/ez,...). Alegin egingo litzateke lehen bilera Sasietako ordezkari eta Gabiriako Udal ordezkariekin batera.	- Bilera data finkatu eta prestatu